

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



2018-09-28 / 579. ZENBAKIA / 14. URTEA
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM

Jokin Lizeagak emango dio hasiera jaiari

Urnietako kirolariak ostegun honetan Sanmielen hasierako txupinazoa botako du. Apirilean erorketa larria izan zuen, kezka handia eragin zuena. / Gehigarria



Jokin Lizeaga 'Urnietar Prestu' izendatu zuten 2016ko Iñistor Jaian. AIURRI

Etorkizun beltza merkataritzarik ez duen herriarena

Salkin merkataritza elkartearen ekimenez, eta Andoaingo Udalaren lankidetzarekin, egunotan kanpaina ikusgarria egiten ari dira. / 2-3



Andoaingo eta Urnietako AEK euskaltegietan izena emateko azken egunak / 12

Euskal gatazka euskal literaturan, Ramon Saizarbitoriaren hitzaldia Urnietan / 11

Azken finalaurrekoa Urnietan jokatu eta gero, sagardo onena Usurbilgo finalean aukeratuko dute / Gehigarria

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Laster Aiurriko harpidedunek Ikusbera aldizkariaren zenbaki berria jasoko dute.



KOLOREA 24TIK AURRERA



BELTZA IRAILAREN 20TIK 23RA



Kanpainaren hasierako irudi iluna kolorez bete zen, egunak aurrera joan ahala. Arruti gozotegi-okindegiko argazkiekin egindako muntaian ondotox ikus daiteke hori. AIURRI

Beltza ez den koloreen alde

Salkin merkatarien elkarte, Beterri-Buruntzako gainerako elkarteekin batera, kanpaina ikusgarria burutzen ari da egun hauetan. Erakusleihoak estaliz, beltzari dagozkion adiera ilunenak iradoki dituzte. Koloreei loturiko mezu alaiekin jarraipena eman diote

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Zapata dendara sartu, probatu eta hanka egin. Jostailu dendara hurbildu, produktuari argazkia atera eta alde egin. Erosle izan daitezkeen pertsona batzuren jokabidea horixe da garaio-tan, eta dendariak badakite zer dagoen jokabide horien atzean: On line merkataritza. Gaur gaurkoz horixe da tokiko merkataritzaren mehatxurik handiena. Eta zinez noziten ari dira. Bakoitzak bere txikitasunetik lehia horri aurre egitea ezinezkoa da. Eta horregatik daude

egoera zailean. Ez da Andoaingo arazoa bakarrik, orokorra baizik. Iaz, Hernaniko merkataritari talde batek irudimenez beteriko kanpaina burutu zuen. Gizartearengan eragin nahi zuten, tokikoaren balioa indarrean jarritz.

Hernaniko kanpaina hura 2018an beste herrietara zabaldu da. Andoainen, Salkin merkatarien elkarteak hartu du ekimena, eskualdeko Merkataritza Bulego Teknikoaren lankide-tzarekin. Andoaingo Udalak ere kanpainarekin bat egin du.

Kanpainarik ez Urnietan

Egunotako kanpaina merkatari elkarten esku egon da. Urnietan ez da kanpaina egin, On Bizi elkarteak desagertu egin baita. Lan txukuna egin dute urte luzez, baina zoritxarrez, elkartearen martxa eten egin da.



Ezuste handia ematea lortu dute Andoainen

Herritar guztion ahotan egon da plastiko beltzaren erabilera-ekin hasi zen kanpaina. Ez dira lau, bost, zazpi denda izan. Dozenaka izan dira kanpainen murgildu direnak, herrigune osoan gainera. Bada azpimarratzeko datu gehigarria: Salkin elkarteko kide ez diren merkatalguneek ere kanpainarekin bat egin dutela. Merkataritzaren aldeko ekimenetan, beraz, joan zen astean Andoainen abiatu zena mugarri dela esan daiteke. Dendari ugari, denak batera helburu berdinen alde lanean, oso gutxitan ikusi den irudia izan da. Balio beza herritarren artean eragina areagotu dezaten. Eurak baitira gertuen dituzten erosleak.

Andoaingo merkatarien balorazioa

Olatz Olmedo

(Ikeltz mertzeria):

"Merkatarien kezka agerian geratu da kanpaina honetan, Salkin elkartekoak ez direnek ere parte hartu dutelako. Dekorazio beltzarekin dendak penagarri zeuden, eta egia esan, merkatari asko bide horretan gaude. Denda berri batzuk ireki eta denbora gutxira itxi dituzte. Bestean kasuan, horrela jarraitzeak merezi ote duen galdetzen diogu gure buruari. 40-50 urte ditugunontzat panorama ez da erraza izango".

Asun Diosdado

(Asun arropa denda):

"Ez gara Salkin elkarteko kideak. Ileapaindegia, tabernak, dendak... denen parte-hartzea ona iruditu zait. Herritarra kontzientziatzea lortu dugula iruditzen zait. Dendak itxiz gero, bistakoa da zein izango litzatekeen herriaren panorama".

Jaione Bitoria

(Anita gozotegia)

"Kanpaina egitea beharrezkoa zen, eta eragina izan duela ikusten ari gara herritarrek merkataritzaz hizketan aritu direlako. Herritarrek kontzientziatzeko baliagarria izan da, eta baita gu geu gure interesen alde aritzeko ere".

Natalia Garcia

(Cisneros denda)

"Niri kanpaina egin izana ondo iruditzen zait. Gure dendan balorazio ezberdinak jaso ditugu. Baten bati hain plastiko garestia erabiltzea gaizki iruditu zaio, eta besteren batek bezeroa hobeto zaintzea kontutan hartzeko eskatu digu".

Parte-hartze handiak ikusgarritasuna eman zion Andoaingo merkatalguneen kanpaina bateratuari



Stop liburudenda, kanpainaren hasieran. AIURRI

Galdera ikurra Urrutitik, beltzarekin batera, galdera ikurra nabarmentzen zen erosleen eta oinezkoen begietara. Kanpaina ikusgarria egitea lortu dute.



Denda zabalik ala itxita dago?, herrikide askoren kezka. AIURRI

Esaldiak "Ez dakigu zer daukagun galtzen dugun arte" edota "Nolako Andoain nahi duzu?" galderak ikusgai zeuden hainbat erakusleho eta dendatan.



Kanpaina herrigune osora zabaldu da. AIURRI

Eragina Salkin merkatarien elkarteko kanpainak eragin handia izan du, baita elkarteko kide ez direnen artean ere. Denek batera ikusgarritasun handia lortu dute.



Puxika ugari zintzilikatu zituzten Amantegin. AIURRI

Koloreak Lehen egunetako iluntasuna alde batera utzi, eta astelehenean kolorez bete zituzten Andoaingo erakuslehoak.



Xixori, Ormendi eta Bitoria kolorez beterik ziren. AIURRI

Indar biderkatzailea Kanpaina dendari solte batzuk egitetik askoren artean egitera alde dago. Elkarrekin arituz lor dezaketen indarra askoz ere handiagoa da.



Bastero eta Cisneros kolorez eta mezuz beterik. AIURRI

Irismena Uda amaiera, udazken hasieran egin duten kanpainarekin herritar guztiengana iristea lortu dute. Ez baita ia inor epel geratu.

Kanpaina eskualdean



MARTA ZULAIKA
MERKATARITZA
BULEGO TEKNIKOA

Ekimena duela urtebete sortu zen Hernanin, hango merkatarien kezkatik abiatuta. Andoainin egunotan egin duten kanpaina berdina egin zuten, herritarren artean sentsibilizazioa zabaltzeko. Aurtengo kanpaina Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria eta Usurbil, Beterrri-Buruntzako merkataritza taldeak batera ari dira lanean.

Helburua lortu da



LUIS ANGEL ORTE
SALKIN

Eskerrak eman nahi dizkiet Udalari, Udal teknikariei eta bereziki kanpainen parte hartu duten merkatariei eta ostalariei. Bakoitza gure egunerokoan sartuta bizi gara, eta ez da gustukoa gure erakuslehoak beltzez estaltzea. Esfortzu handia izan da. Herritarren erantzuna eta erreakzioa ikusita, jarritako helburuak lortu ditugu.

Herritarra sentsibilizatzea



JUANJO ALLUR
BETERRI
BULEGOA

Erakuslehoak beltzez estaltzea ez da irudi gozoa herritarrarentzat, eta gutxiago dendariarentzat. Sortutako paisaia gogorra da denontzat. Egoera zaila delako, egoerak behartuta egin da herritarrak sentsibilizatze kanpaina. Herrigune biziak, eta ez hilak, nahi baldin baditugu, merkataritzak zer nolako garrantzia duen pentsarazi nahi dugu.



Hausnarketarako bidea

JON ZULUETA ANDOAINGO UDALEKO ZINEGOTZIA

Eskualdeko merkataritza elkarteei eskerrak eman nahi dizkiet, ordezkatzeko dudak eta gainerako udalen izenean. Herrigunearen garapenean, garapenaren esanahirik zabalenean, merkataritza garrantzia handikoa da. Hausnarketa kanpaina bat da, herritar guztiei zuzenduta dagoena. Biztanle modura hausnarketa egin behar dugu erakusleho horietan "Zer nolako herria nahi dugu?" bezalako galderak irakurtzen ditugunean. Herri bizia nahi badugu, behar-beharrezkoa dugu bertako merkataritza sustatzea.

Erakundeoi interpelazio zuzena egiten zaigu, eta ezin dugu hori saihestu. Gaiari bere horretan heldu behar zaio. Gure animoak entzuterako ohituta daude, baina orain babes neurriak behar dituzte. Erakunde guztiok serio hartu behar dugun arazoa da.

Azkenik, merkatalguneei ere zuzenduta badago kanpaina. Erronka ez da makala eta merkatariek ere aurre egiteko arduraz jokatu behar dute. Modernizazioa, teknologia berrien txertaketa... Kanpaina honek, gainera, zerbait erakutsi badu modu bateratuan aritzeak indar handia ematen duela da. Udalerrietako arduradunen erantzukizuna bada ere elkarlan hori sustatzea, eta ahal dugun horretan laguntzea.

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



ZABALIK

ANDONI URBISTONDO URNIETA

Etxeko lanak

1993ko irailean 20 urte nituen. Unibertsitateko hirugarren urtea. Eguneroko ohitura. Xauxar tabernara jaitsi eta lagunekin tertulia, gauerdia pasa arte gutxienez. Irailaren 22ko goizalde hartan, Xauxar-etik Urrakarako bide erdia Juantxo Sardonekin egin nuen. Idiazabal kaleko kiosko zaharrean, baina, Guardia Zibilen Patrol handien ilara luzea ikusi genuen. Guri begira pasa ziren.

Panaderiko aldapan Juantxo-k aurrera jarraitu zuen. Ni Aranzubi aldera. Aldapa jaitsi, ezkerrean, portaleko atea ireki... eta bi metroko 4 morroi han, armak eskuetan. 'A por quien venis?' galdetu nien. Batek Carmen Urbistondo esaten asmatu zuen. 'Es mi hermana', esan nien. Gogoratzen dudun hurrengo esaldia, 'contra la pared y no se mueva'. Hurrengo soinua, aita zenaren oihiak Guardia Zibilak etxean kolpeka sartu zirenean.

Gero orduak etorri ziren. Egunak. Zain egon beharra, notiziarik gabe. Eta bat etorri zenean... Etxera deitu zuten. Urnietan atxilotu zituzten bi emakumeetatik bat hil egin zela Madrilen. Ez dakit nola azaldu egoera hura, nor izan zen jakin genuenean, Iantzi Igerategi sendia mindu gabe. Madrilen, Entzutegi Nazionalean, Iñaki anaia sartu zen kalabojoetara, arreba ikustera. Galdera zuzena

egin nion amak ez entzuteko moduan: 'Jo ditek?' Erantzuna: "Burua butano bonbona bat bezala zeukak".

Joan dira 25 urte. Inoiz ez dut solasaldi luzerik eduki arrebarekin pasadizo hartaz. Bistan da ez duela eduki nahi. Baina ia inor ez zaio galdetzeraz joan. Ezta Iantzi Igerategi sendiari ere. Galdera soilak: ze pasa zen han? Laguntzarik behar duzue? Ondo zaudete? Galdera horiek egin eta batzuen buruan biolentzia ezberdinen paradigma hasten baita; ekidistantziaren lasterketa, errelato, edo errelatoen borroka. Nik torturatuak, edo polizia liskarretan hil direnentzat justizia, egia, erreparazioa eskatzen badut, ETak hil zituenekin antzeko jokabidea ote dudun erantzungo didate. Galdetu jartzen dudun tokian leporatu erabil nezakeen...

Honatz, erantzuna: Bai. Salatu, gaitzesten dut ETak egin dituenak. Torturen ondorioz, poliziaren sarekadetan eta beste hil direnak bezalaxe. Baina biktima batzuk, ETak eragin zituenak, merezi duten errekonozimendu, erreparazio eta justizia jaso dute. Milaka torturatuak ez. Zer esanik ez Gurutze Iantziren familiako kideek.

Batzuk ez dute biktima direnik onartuko sikiera. Torturak atxilotuen asmakizunak direla sinetsita daudenak, hain zuzen ere. Lan asko dago, dugu egiteko.

Euskal Herriak defizit handia du. Biktima parapolizialen legearekin gertatzen ari dena, adibide. Egindako delituak ez ikertzeko exijentzia egin dute zenbait alderdi politikok... elkarbizitzaren aitzakiapean. Halako eskaerak ez dira ulertzen Euskal Herrian, baina independentzia juridikoa eduki bitartean ez da aldaketarik egongo. Izan ere, zehar kalterik jasateko beldurrik gabe esan daiteke publikoki ETak erail zuela, baina ezin da esan askatasunez publikoki norbait torturaren ondorioz hil zenik. Esaten bada, Euskal Herrikoa ez den Justizia bat etor daitekeelako, kontu eske.

25 urte. 1993ko bi argazki, bi koadrila kidek egindakoak. Jon Martiarenak bata. Jatorri jeltzaleko familiakoa. Urnietako Ezker Abertzalearen egoitzara hurbildu zen, ausart, bere koadrilako lagunak atxilotu eta torturatu zituztelako, pankartak egiten laguntzeko. Juan Miguel Perurena, bestea. Militantzia politikoko jakinik gabekoa. Gurutzeren zerraldia bizkar gainean hartu zuen, Udaletxe barrura eramateko, bere sumindura azaltzeko.

Errenteria. 2018. ETak eraildako Guardia Zibil baten emazte eta semea herriko alkatearekin batzartu dira, eta hark, herriaren samina eta elkartasuna aitortu die publikoki. Alkatea EHBildu alderdikoa da, Julen Mendoza. Urnietak ere Errenteria izaten saiatu beharko luke...

ESKELAK AIURRIN:

943 300 732 | publizitatea@aiurri.eus

► Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /

► Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ



Aiurri eskuragarri:
Ebeze etxeko harpidedun-sistema. Andoainen urte osoko harpidedun-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketzaileak: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidedunak: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publikitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: ERROITZ
ALJATUAK: ALJATUAK, nestorx, TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA, Urnietako Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA: EUSKO JAIURRIAREN GOBERNUA, Gipuzkoako Foru Aldundia

ZIURTAGIRIA: Bitkarn

BABESLEAK: Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

PRENTSA BULEGOTIK

Isurketa Leitzaranean

EGUZKI ANDOAIN TALDE EKOLOGISTA

Erredakzioa ANDOAIN

Irailaren 15ean isurketa berria gertatu zen Leitzaranean, Andoainen. Herritar batek jakinarazi bezain pronto, 112ra deitu genuen.

Isurketa, Kaleberriko zubia eta Renfeko zubiaren artean gertatu zen eta denbora tarte batean ibaiko ura, batez ere ezkerreko ibai-bazter aldekoa zuri-zuri ikusten zen.

URA agentziako ikuskaria etorri zen baina ordurako ibaia ia bere onera etorria zegoen. Guk ez genuen hildako arrainik edo antzekorik topatu baina jatorriari buruz, isuritako gaiari edo/eta izan zitezkeen kalteen berri izateko ikuskariaren txostenaren zain geratu ginen.

Antzeko isurketa bat gertatu zen uztailaren bukaeran, baina orduan ez zuten jatorriaren zantzurik topatu.

Jatorria topatu dute

URAKo ikuskaria eta Udaltzainen arteko lanak emaitza onak eman ditu oraingoan. Isurketaren jatorria topatu dute. Konponketa lanak egiten ari



Irailaren 15eko isurketaren argazkietakoa.

ziren etxe batean, pintura txuria bota zuten arraskatik behera. Margoak, ura koloreztatzeaz gain, oso kutsakorrak izatera iritsi daitezke, nagusiki metal pisutsuak (beruna, kadmioa, merkurioa) eta konposatu organiko hegazkorak dituztelako. URAK Udalaren

esku utzi du lege-haustearen kudeaketa.

Beste arazo batzuk agerian

Isurketa honek ur-beltzekin edo hondakin-urekin zerikusia duen beste arazo bat utzi du agerian: Belabi, Leizor eta Aingurasutegi kaletako etxeok urak ibaira isurtzen dira

zuzenean. Gaia ezaguna da Eguzkikoontzat, izan ere, aukera dugun bakoitzean plazaratzen dugu gaia, ibai garbiketarak edo/eta erreka jaitsierak antolatzen ditugunean esaterako. Dena dela, uste dugu badela garaia arazo honi irtenbidea emateko, tristea baita XXI. mendean, Biotopo izendatuta dagoen ibaia ur-beltzen isurketekin zikintzea (nahiz eta herrigunea babestutako gunetik kanpo dagoen), Adunako araztegi bidali beharrean. Horregatik, Andoingo Udalarari Leizorango hondakin-urak araztegi orain bideratzeko eskatzen diogu.

Bukatzeo, halako kasutan, eta are gehiago isurketa hau bezalakoak direnean, asko irau ez duen isurketa izanik, oso garrantzitsua da azkartasuna. Horregatik, isurketaren bat ikustean oso garrantzitsua da 112ra deitzea lehen bait lehen. Edota guri zuzenean (688 662 532). Eguzkikook saiaturako gara jarraipena egiten (bai isurketari, baita ondorengo bide administratiboari ere) eta jakinarazpen publikoa egiten. Era berean, eskerrak eman nahi dizkiogu isurketa hau argitzeko laguntza (informazioa, argazkiak...) eman duten pertsona guztiei.

HAU ERE BADUGU!

Kataluniarekin elkartasuna

Katalunian deitu zuten herri galdeketa urteurrenean, Andoingo Gure Esku Dagok urriaren 1erako elkarretaratze isila deitu du Goikoplazan, iluntzeko 20:00tan hasiko dena. Sarean zabaldu dute deialdia

Oihartzun handiko albisteak

Euskal Herriko hedabideetan tokia eskaini zaion bezala, nazioarteko hedabideetan ere zabalpena izan du Gurutze Iantziren heriotzak eta hari lotutako gertakari ilunek. Medium.com gunea, adibidez.

Sexu eraso bikoitza Andoainen

Aiurri astekaria inprentan zela, Andoainen azken egunetan izandako bi sexu erasoak salatzeo elkarretaratzea deitu zuten Goikoplazan. Albisteak jakin zenetik asaldura piztu da andoaindarren artean.

DATUA

Euskal sagardoa, jatorri deitura

%100 bertako sagar hutsez egindakoa da 'Euskal Sagardoa Jatorri Deitura' zigilu gorria daraman edaria. 2017an 4.000.000 litro sagardo egin ziren Euskal Sagardora zuzenduta, horietako asko Gipuzkoan. Guztira, 48 dira jada Euskal Herriko jatorri deituradun sagardoa ekoizten duten sagardogileak. Eta 270 ekoizle Euskal Sagardorako sagarra ekoizten dutenak. Sektorearen apustua garbia da: bertakotasuna eta kalitatea ziurtatzea. Azken urteetan sagasti berri asko landatu da Gipuzkoan. 'Euskal Sagardoa Jatorri Deitura' ren egitasmoaren baitan askoz gehiago landatzea aurreikusita dago.

GORA ETA BEHERA

**Merkataritza sustatzeko egitasmoa**

Salkin elkarteko kideak eta herriko beste hainbat dendari, eskualdeko merkataritza bulegoa, Udala eta eskualdeko gainerako eragileak elkarrekin zeresan handia eman duen kanpaina egitera iritsi dira. Merkataritza herrigunea bizi duten guztien paisaian dago. Behar beharrezkoak dira. Egunotako kanpainak hausnarketarako bidea eman dio andoaindar askori.



Gure buruarekin hemen eta orain

“Buruan ditugun kezka, estresa eta beste hainbaten egoerez jabetzeko eta baretasuna lortzeko teknika da”. Mindfulnessa horrela laburbildu du Clara Wolfram dinamizatzaileak. Urriaren 3an hasiko den ikastaroaren arduraduna da

AMAIA SENPERENA ANDOAIN

Zer da Mindfulness ikastaroa? Zer egiten duzue bertan?

Mindfulnessa buruan ditugun kezka, estresa eta beste hainbaten egoerez jabetzeko eta baretasuna lortzeko ikastaroa da. Ikastaroaren ideia, burua hemen eta orain edukitzea da. Gehienbat emakumeok burua mila gauzatan izaten baitugu, eta horrek ez digu momentuan momentukoa horren ondo bizi-tzen uzten.

Mindfulness ikastaroak egunerokotasunaz gehiago disfrutatzen eta momentuan gertatzen den horretaz gehiago jabetzen lagunduko digu.

Emakumeentzako ikastaro interesgarria dela esango nuke, emakumeoi besteen beharrez oso pendiente egotera irakatsi baitigute eta horrek gure beharrak askotan bigarren plano batean uztera eramaten gaituzte. Esan genezake besteen beharrak identifikatzen eta asetzen espezializatu garela eta askotan ez dakigula gure beharrak kontutan hartzen eta asetzen.

Beraz, emakumeei bideratutako ikastaroa al da?

Emakumeen jabe-kuntzarako eskola den heinean, bai. Besteen beharren pendiente gauden mundu murmuratsu honetan, espazio gutxi dugu non eta nola gauden konturatzeko eta une honetan zer behar dugun antzemateko. Ikastaroan, gorpuzaren kontzientzia lantzeaz gain, meditazio eta erlaxazio ariketak ere egingo ditugu. Gure buruarengan arreta jartzen ari-tuko gara. Gero, hobeto antolatzen eta etengabe buruan kezka ez izaten lagunduko diguten ohiturak hartuko ditugu.



Clara Wolfram Mindfulness ikastaroko dinamizatzailea. AIURRI

Esaten duzunaren arabera, yogaren moduko zerbaitez hitz egiten ariko ginake?

Emakume asko yogara espazio hori eskuratzeko joaten dela esan genezake. Askotan entzun dut: “Yogara joaten naizenean bi ordu horiek niretzako dira”.

"GORPUTZAREN KONTZIENTZIA LANTZEAZ GAIN, ERLAXAZIOA LANTZEN DUGU"

Eta Mindfulness ikastaroan igarotzen dugun denbora ere norberarentzako da.

Zenbat denbora daramazu ikastaro hau eskaintzen?

Orain dela hiru urte formakuntza jaso nuen eta ikastaroa eskaintzen bi urte daramatzat.

"ESTRESAK ADIN GUZTIAN ERAGITEN DIGU, ETA ONA DA GELDIALDI TXIKI BAT EGITEA"

Emakumeentzako beste tailer batzuk ere eskaini izan ditut. Esan beharra dut niri, emakume bezala, oso ondo egin didala, Mindfulnessa nire burua hobeto zaintzeko baliabide bat baita.

Nolako harrera izaten ari da ikastaroa parte hartzen ari diren emakumeen artean?

Ona, zerbaitek on egiten dizula sentitzean eta saiora sartu eta baretasun sententzioarekin ateratzen zarenean, ohartzeko zara onura horrek zure buruari denbora eskaini behar diozula konturatzerara eramaten zaituela.

Saioetan ikasitako praktikak pixkanaka egunerokotasunean sartzen joanez gero, errazagoa egingo zaigu baretasun hori lortzea.

Parte-hartzaileek onurak sentitu dituzte, beraz?

Bai, ikastaro hauetan normalean jendea saio guztietara etortzen da, hobekuntzak berehala nabaritzen baitira. Esan beharra dago ikastaroak hilabete irauten duela (zortzi saio) eta orokorrean harrera ona izaten ari gara.

Zortzi saio horiek luzatzeko aukera legoke?

Jendeak nahi izanez gero, planteatu daitekeen aukera da, baina printzipioz zortzi aste dira eta gure helburua zortzi aste horietan eskuratutako teknikak norberak bere esku erabiltzea da.

Zein adin tarteko jendeak hartzen du parte saioetan?

Adin guztietako emakumeak izan ditut saioetan; gazteenetik hasi eta jubilatuetara bitartean. Zoritxarrez, gaur egun estresak adin guztietan eragiten digu eta edozein momentu ona izan daiteke geldialdi txiki bat egin eta gure buruaren kontrola berreskuratzeko.

Zer esango zenieke saio hauetara animatzeko moduan diren emakumeei?

Norberak bere buruarengan arreta jartzea ezinbestekoa da. Emakumei askotan gehiago kostatzen zaigu guretzako denbora hartzea, eta horretara animatu nahi ditut guztiak.

"KOSTA EGITEN ZAIGU, BAINA NORBERAK BERE BURUARENGAN ARRETA JARTZEA EZINBESTEKOA DA"



JABEKUNTZA ESKOLA

• Mindfulness

Estresaren buru-abiaduratik jaisteko tresna.

Hasiera: Urriak 3.

• Motibatu nahi?

Automotibatzen eta motibatzen ikasteko ikastaroa.

Hasiera: Urriak 9.

• Sendabelarrak

'Gure emakumeen arbasoen ezagutzara hurbilduko gara'.

Hasiera: Urriak 9.

• Teoria feminista

Ertetik erdigunera bidean: gogoeta feministak.

Hasiera: Urriak 10.

• Batukada Feminista

Musikara gerturatu eta ondo pasatzeko ekimen ikusgarria.

Hasiera: Urriak 15.

• Autodefentsa tailerra

'Tailer honetan ikasiko dugu erasoak identifikatzen'. Aurre egiteko mekanismoak.

Hasiera: Azaroak 17.

• Elkargune multikulturala

Emakume etorkinak astero bildu eta migrazioaren bizipena partekatzeko espazioa.

Hasiera: Urriaren hasita, astean behin.

IZEN-EMATEA

Ikastaro guztiak doakoak dira. Haurtzaindegi zerbitzua ere eskuragarri izango da, nahi izanez gero.

INFORMAZIOA

ANDOAINGO UDALA
Berdintasun arloa
Urigain eraikina, 1. bulegoa.
943 300 830.
berdintasuna@andoain.eus.

SANMIELAK 2018

URNIETA



Urnietako Udalak

gehigarri hau argitaratuz

jairik zoriontsuenak

opa dizkizue urnietar guztiei



Super H festa, mundiala

Egoera zailean diren haurren alde aurpeirik onena ateratzen maisu bilakatu dira Super H elkarteko kideak. Jolasa, umorea eta kirolaren bitartez arratsalde bikaina igaro zuten San Juan plazara hurbildu zirenek. Elkartasun festa ederra izan zen



Kolore eta apar festa San Juan plazan. LARGAZKI (LARTAUN ITURBE)



Umorea ez zen falta izan Super H festan. LARGAZKI (LARTAUN ITURBE)

Erredakzioa URNIETA

Goizean goizetik, orientazio proba medio, egun berezia zela nabari zitekeen Urnietan. Eta arratsaldean zehar giro on hori handituz joan zen. Jolas eta bestelako jardueren artean, 200 haur inguruk parte hartu zuten mendi lasterketa txikian. Giro onean egin zuten lasterketa, aurretik Super H super heroiak beroketa ariketa dibertigarriak egin baitzuten. Eta lasterketari ezusteko amaiera eman zioten gurasoek, eurek ere irribarrea ahoan ibilbide txikia osatu baitzuten.



Adinaren arabera sailkatuta, lasterketa ezberdinak egin zituzten. LARGAZKI (LARTAUN ITURBE)

Margolan onenei saria

Helduen maila, 15 urtetik aurrera:

1. saria: Eduardo Alsasua (750 euro).
 2. saria: Yulia Hryhoryeva (450 euro).
 3. Lehen urnietarra: Ana Belen Atxaga (300 euro).
- Haurren maila, 14 urte arte:
1. saria: Ane Pacual (100 euroko erosketa txartela).
 2. saria: Uxue Estibariz (50 euroko erosketa txartela).



Igande iluntzean irabazleen berri eman zuten. Lekaio kultur etxean. UDALA



Koloredantz ikuskizuna larunbat arratsaldean Saroben. EGAPEDT

Egape dantza taldearen ikuskizun bikoitza

'Ez utzi dantzatzeari' eta 'Koloredantz' dantza emanaldiak arrakasta handiarekin eskaini zituzten.

Erredakzioa URNIETA

Egapeko helduenek ekainean eskaini zuten 'Ez utzi dantzatzeari' ikuskizuna errepikatu zuten, orduko hartan lortu zuten arrakasta berdinarekin. Zalan-tzak izan zituzten arren, azkenean emanaldia kalean egitea erabaki zuten eta, antolatzaileak as-

matu zutelakoan daude. Izan ere, kalean egiteko moduko ikuskizun ausarta da.

'Koloredantz' izan zen larunbat arratsaldean Egape dantza taldeak Saroben eskaini zuena. Hamabost koreografia denera, 45 dantzariaren eskutik.

Asteburu borobila, Egaperena.

Jokin Lizeaga, ostegunean jaiei hasiera emateko prest

Asier Niebla eta Gurutze Iantzi gogoan hartuko dituela aurreratu zuen Euskadi Irratian eginiko elkarrizketan

Erredakzioa URNIETA

Ezaguna den bezala, jaien hasierako txupinazoa botako du Jokin Lizeaga mendi lasterkariak. Izendapen hori abiapuntu tzat hartuta, bizitzari buruzko ikuspegiak eta apirilean izandako istripuaz aritu zen Euskadi Irratiko Mezularia saioan, Ainhoa Etxebeste eta Aiurriko Jon Ander Ubedarekin batera. Zein mezu zabalduko duen galdetuta, hona erantzuna: "Bizitza gozatzeko dela, lehendik ere argi nuen eta orain ere bai. Haserreak, enbidia eta horrelakoak alderatu eta herritarrek goza dezatela. Bizitza epe motzekoa da eta gauden bitartean gozaten saiatu behar dugu". Une zailak bizi izan ditu azken urteetan, eta hala eta guztiz ere pozik eta ilusioz dagoela aitortzen du.



Jokin Lizeaga, apirilko irudian. AIURRI

Txupinazoan Donostiako jaie-tan larriki zauritu zuten Asier Niebla gogoan izango duela aurreratu zuen, eta baita duela 25 urte inkomunikazio egoeran hil zen Gurutze Iantzi ere.

SANMIELAK URNIETAN 2018

IRAILAK 27

OSTEGUNA

- 16:00-18:00** Urnieta Selfie! proba-jolasa, Gaztelekutik abiatuta 11-16 urteko gazteentzat.
- 17:30** Bingoa eta petanka Denda Berrin.
- 18:00** 2017ko irailaren 1etik aurrera jaiotakoei zapia jarriko diete Kontzejupean.
- 18:30** Erraldoi eta buruhandien kalejira Plazido Muxikatik hasita, Bosko Anitzekin.
- 19:00** Euskaraldia Urnietan Hamaikakoaren aurkezpen ekitaldia.
- 19:30** Kanpai jotzea eta Mielaren jaitziera, kanpandorretik Udaletxera. Txupinazoa Jokin Lizeagaren eskutik. Bosko Anitz Txarangaren kalejira eta txosnen irekiera. Tortila lehiaketa. Gau tematikoa: XX. mendeko pertsonaiak.
- 23:00-00:30** Monolokos bakarrizketa saioa San Juan plazan: Humberto Gutierrez, Maribel Salas eta Jose Cruz Gurrutxaga. Euriarekin Saroben.

IRAILAK 28

OSTIRALA

- 09:30** Diana Txanbolin txistulari bandarekin.
- 10:30** Alkate Txikien izendapena Udaletxean.
- 10:30** Belauntzingoa dantza emanaldia.
- 10:30-13:00** Kirol txapelketa 9-14 urtekoentzat Azkorten.
- 11:00-14:00 / 16:30-18:30** Haur eta gazte parkea Egape ikastolako jolastokian.
- 16:30** Mahai joko eta toka txapelketa Denda Berri elkartearen.
- 17:00** Kontzejupeko eskupilota txapelketaren finalak.
- 17:00** Gazteen arteko jokoak.
- 17:30** Markeliñeren Chef Nature antzerki emanaldia Etxeberri plazan. Euriarekin, Egapen.
- 18:00** Kantupotea San Juan plazatik.
- 19:00** Xaibor! San Juan plazan.
- 20:00** Alkate Txikien botere uztea udaletxean.

21:00-23:00 Oilasko-afaria txosnagunean.

23:00-02:00 Oihan Vega DJa San Juan plazan.

23:00 Sad Mirri, Kea eta IRA txosnagunean.

07:00 Zumba San Juan plazan.

IRAILAK 29

LARUNBATA

- 09:30** Diana, Txanbolin.
- 09:30** Probintzia mailako bolo txapelketa.
- 10:00-13:00** Bakailaoa pil-pil erara, Maxter-Txef txiki lehiaketa txosnagunean.
- 11:00** Haur jolasak Etxeberri plazan.
- 11:00** Meza Nagusia.
- 12:00** Pasai txarangaren kalejira.
- 12:00** Udal omenaldia txistulariei.
- 12:00** Txanbolinen emanaldia.
- 12:00** Gazte poteoa Guriatik.
- 14:00** Adinekoen bazkaria Oianumen.
- 14:00** Emakume koadrillaren bazkaria.
- 14:30** Bazkari herrikoa txosnagunean, Poxta Zaharren eskutik. Txartelak agortu arte Gurian salgai. Erosteke azken eguna, irailaren 23a.

16:30-18:00 Holi Fest! Plazido Muxika plazan, 11-16 urtekoentzat.

17:00-21:00 Pasai txaranga.

18:00 'Se fini!' Ikuskizuna San Juan plazan. Helduentzat, gazteleeraz.

18:00 Tropicana orkestra Plazido Muxika plazan.

18:00 Barbakoafest! pintxoak eta edariak San Juan plazan. DJ Katxorro.

18:00 RKeR elektrotxaranga, Idiazabal kalean zehar.

19:00 Urdanbor Plazido Muxikatik.

19:15 Danborradaren elizan.

22:30 Andoni Egaña, Eli Pagola, Agin Laburu eta Miren Amuriza Saroben. Gai-jartzailea: Amaia Agirre.

23:30 Urdanbor Idiazabal kaletik.

23:30 Kaotiko eta Garilak 26 txosnagunean.

24:00-04:00 London Orkestra San Juan plazan.

07:00 Elektrotxarangaren kalejira.

IRAILAK 30

IGANDEA

- 10:00** Kalejira Urnieta, Andoain, Lasarte-Oria, Astigarraga eta Hernaniko txistulariekin.
- 10:30-13:30** Txorizo eta sagardo postua San Juan plazan.

11:00 Haur danborradaren hasiera.

12:00-13:30 Egapedanbor eta Magale haur danborraden elkargunea San Juan plazan. Ondoren kalejira.

17:00 Stunt motor ikuskizuna Idiazabal kalean.

17:30 Apalatxe eta Olatz Salvador zuzenean txosnagunean.

18:00 Erraldoi eta buruhandien kalejira, San Juan plazatik.

18:30 Mattin Mujika pilota jaialdia. Erremontea: Ansa II-Arruarte // Goikoetxea-Azpiroz. Esku-pilota: Ojuel-Lizeaga // Arrieta-Azanza.

19:00 Lisker San Juan plazan.

20:30 Dantza-Soka, Mielari agurra, azken traka San Juan plazan.

URRIAK 6

LARUNBATA

19:00 Aurrera Gure Ametsa eta La Trébede Saroben.

URRIAK 7

IGANDEA

- 10:00** Diana, Txanbolin.
- 11:00** Meza elizan.
- 12:00** Ingurutxo eta Jalgi Plazara jaialdia San Juan Plazan. Valladolideko produktuen salmenta San Juan Plazan. Munduko ardoen dastaketa.



Sanmielak 2018 Aiarri.eus webgunean:

Protagonistak,
egitarau osoa,
argazkiak, bideoak...



Batzokiko mahai guztiak bete ziren, joan zen larunbateko finalurrekoan. AIURRI

Sagardo onena zein den erabakitze afaria

Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak antolatuta, eta usadio zaharra berreskuratuz, pasa den larunbat gauean Euskal Herriko IV. Sagardo Txapelketa Herrikoien laugarren eta azkeneko kanporaketa saioa egin zuten Urnietako Batzokian

Joxeba Lizeaga URNIETA

Sagardoaren lurraldean bete-bete kokatuta egonagatik ere, estrainekoz iritsi zen bertara txapelketa, eta hitzordua arrakastatsua izan zen. Izan ere, 60 lagunek hartu zuten parte (53 gizon, eta 7 emakume) Batzokia erabat betez. Txapelketa honen ezaugarri nagusia da afaltzera bertaratzen diren lagunak

izaten direla epaimahai lanetan aritzen direnak.

Urnietako finalurrekora bertaratutakoek 11 sagardo ezberdin dastatu eta epaitu zituzten, bertako produktu bikainekin osatutako afarian zehar. Eguraldi beroarekin hasitako afaria, are eta gehiago berotu zen platerer plater, sagardoz sagardo. Bero sapa haren erdian, nabar-

mentzekoa da sukaldariak eta zerbitzari lanetan aritu ziren batzokiko kideek egindako lana.

Aurtengo edizioan, Euskal Herri osoko (ia denak gipuzkoarrrak) 41 sagardotegik eman zuen izena, horien artean, Urnietako, Setien, Eula, Elutxeta eta Oianume, eta baita Andoaino Gaztañaga ere.

Txapelketaren laugarren edizioa 2015ean antolatu zuten aurrenekoz Euskal Herriko Sagardo Txapelketa Herrikoa. Orduko hartan Astigarragako Petrítegi sagardotegiak jantzi zuen txapela. Bigarren edizioaren finala Andoainen jokatu zen, eta Hernaniko Akarregi sagardotegia izan zen nagusi. Hirugarren eta orain arteko azken finalean Andoaino Gaztañaga sagardotegia gailendu zen.

Aurtengo txapelketari dagokionez, irailaren 8an hasi zen, Beasainen egindako aurreneko kanporaketarekin. Bigarren kanporaketa Goizuetan jokatu zen irailaren 15ean, hurrengo Oñatin 21ean, eta azkenekoa larunbatean izan zen Urnietan bertan. Txapelketaren finala Usurbileko pilotalekuan egingo dute larunbat honetan, iluntzeko 20:00tan hasiko den afarian. Bertan, Sagardozale elkarteak 250 lagunetik gora biltzea espero du.

Hamabi sagardogile finalean

Final handi horretara hamabi sagardogile iritsi dira, kanporaketa bakoitzeko lehen bi sailkatuak automatikoki, eta kanporaketetan puntuazioaren arabera puntu gehien lortu dituzten beste lau gehiago.

Antza denez, Urnietako kanporaketan puntuazioak altuak izan ziren. Bertan dastatutako lau sagardotegi izango baitira Usurbilgo finalean, Goizuetako kanporaketatik 3, Beasaingotik beste 3, eta Oñatikotik 2. Finalako 12 sagardotegiak zeintzuk diren ez da jakingo datorren larunbateko afaria bukatu arte. Orduan emango dute aditzera nortzuk izan diren hiru lehengoak puntuazio ordenean, eta gainontzeko finalistak ordean alfabetikoan.



Dantza jaien amaieran. AIURRI

Urriaren 7an ingurutxoan parte hartzeko deialdia

Aurrera Gure Ametsa dantza taldeak antolatuta, entseguetara hurbiltzeko deia luzatu dute

Erredakzioa URNIETA

Euskal dantzaren atal ezberdinak ikusteko aukera izaten da jaietan. Datorren urriaren 7an, igandearrekin, Aurrera Gure Ametsa dantza taldeak Ingurutxo antolatuta du. Eguerdiko 12:00tan izango da eta antolatzaileek jakinarazi dutenez, bertan parte hartzeko aukera irekia da. Ohar bidez adierazi dutenez, ikasturtean zehar euskal dantzak ikasi nahi dituen helduentzat ere atek zabalik dituzte.

Informazioa:

aurreragureametsa.com
agaurnieta@gmail.com
674 252 581



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

Egia eta justizia eske

Urnietarraren heriotzaren 25. urteurreneko ekitaldian, Lekaion antolatu zuten mahai-inguruan horixe izan zen oihartzun handiz entzun zen eskaera. Emozioa nagusitu zen Lekaion, jendez beterik zegoen solasaldi osoan zehar

Xabier Lasa URNIETA

1993ko irailean Madrideko Tres Cantos herriko Guardia Zibilarren kuartelean hildako Gurutze Iantzi gogoan hartuta, egia eta justizia eskatu zuten Urnietan joan den ostegunean egin zen mahai-inguruan. Hiru herrikide hizlari aritu ziren: polizia operazio berean atxilotu eta handik egun gutxira kargurik gabe aske geratu zen Eukén Garmendia, garai hartan Urnietako Udaleko zinegotzi zen Joxe Fermin Argiñarena eta Gurutzeren ahizpa Izaskun.

Hirurek eskaini zituzten testigantza pertsonaletan emozioa nagusitu zen une askotan, eta bertan igarri zitekeen, hogeita bost urte igaro arren orduko gertakizunek oraindik ere jende askoren oroitzapenetan bizirik dirautela. Torturak jasan izana salatu zuen Eukén Garmendia, eta Izaskun Iantzik aitortu zuen barru-mina sentitzen jarraitzen duela, baina sentimendu horren gainetik, egia argitan jartzea eta justizia aplikatzea lehentasunezko eginbehartzat hartu zituen.



lantziren sarekada berean atxilotu zuten Eukén Garmendia, Izaskun Iantzi eta 1993an Urnietan HBko zinegotzia zen Joxe Fermin Argiñarena. AIURRI

Ofizialki ez da biktima

Alde horretatik, gogor salatu zuen hogeita bost urte eta gero Gurutze Iantzik oraindik ere ez duela biktimaren kontsiderazio ofiziala. Euskal gizarteak bizikidetzan aurrera egingo badu, ezinbestekotzat jo zuen Gurutze eta antzeko kasuek ere aitormen ofiziala jasotzea. Mahai inguruan zehar, Pako Etxeberria forentseak

iaz Urnietan bertan Gurutze hizpide hartuta egin zituen adierazpenak ekarri zituzten gogora; alegia, Iantziren kasua eskandaluzkoa izan zela, eta gaia jorratzen duen bakoitzean amorrua sentitzen duela, ikusita zeinen gaizki jokatu zuten estatuko funtzionarioek (poliziak, forentseak, epaileak...), agintarieki eta gizarteak oro har.

Omenaldi ekitaldia San Juan plazan, irailaren 24an

Une hunkigarri ugari bizi izan ziren ekitaldian zehar. Horieta bat Gurutze Iantziren senitartekoak oholtzara igo eta haiei aureskua eskaini zitzaizkion eman zen. Ondoren herritar ugari igo zen taula gainera, senideei larrosak ematera. Familiaren izenean Izaskun Iantzik hartu zuen hitza eta antolatzaileei eskerrak eman zizkien: "Geure zauriak pixka bat arintzen lagundu diguzue". Aldi berean "besarkadarik goxoena" luzatu zien "torturatuak izan diren guztiei, milaka dira Euskal Herrian".

Egiari Zor Fundazioko Ane Muguruzak txalo zaparrada jaso zuen Kontxi Igerategi Gurutzeren



ama eta Julen Irastorza Gurutzeren senarra gogoan hartu zituenean: "Gurutzeren heriotza iluna argitu gabe, egia

ukatuta joan zitzaizkigun". Estatuak eragindako biktimen aldeko aldarria egin zuen Muguruzak.

Geltokiko lurrazpiko pasabidea eraikitzeke lanak abiatu dira

Lanen iraupena bederatzita hilabetekoa izango da, baina ez du oinezkoen igarobidean eraginik izango

Erredakzioa URNIETA

Adifek Urnietako tren geltokian lurrazpiko pasabidea eta igogailuak eraikitzeke lanei ekin die. Segurtasuna eta irisgarritasuna nabarmen hobetuz, lanak amaitzen direnean herritar guztiek eremu hori zeharkatzeko aukera izango dute. Era horretan, Urnietako Udalak egindako eskaerari jaramon egin dio Adifek. Izan ere, trenbidearen alde ba-

natan igogailuak eta eskailerak nasen eremutik kanpo geratuko dira. Hartara, tren bidaiaria izan edo ez, pasabidea denek erabiltzeko aukera izango dute. Lanek iraun bitartean oinezkoen pasabideari eutsiko zaio. Zehar kalte bakarra geltokiaren kanpoaldean ibilgailua uzten duten gidarientzat izango da. Lanek iraun bitartean ezingo da apartakalekua erabili.



Ehiza eta plater tiraketa saioak

Santa Kruz elkarteak ehiza txikiari dagokion txapelketa antolatu zuen Adarran, larunbatean. 16 partaideren artean garaileak Jose Luis Toledotxiki, Juan Arteaga eta Ederne Sarasola izan ziren. Igandean Arkalen plater tiraketa lehiaketa antolatu zuten. Han ere Toledotxiki gailendu zen.



Hobekuntzak mendi bideetan

Mozotegitik Mikelabiruntz doan bidea kilometro ingurukoa da, eta horixe txukuntzen eta berritzen aritu dira. Horiez gain, Agirieta baserrira doan bidea ere hobetu egin dute. Lan horiek aurrera eramateko, Urnietako Udalak 60.000 euroko partida baliatu du.

"Konfiantza irabazi dut"

TXIRRINDULARITZA Ahotsean nabaritzen zaio Mikel Iturriari Espainiako Vueltako 3.248 kilometroek utzi dioten nekea. Hiru aste luze, beroa, ihesaldi on bat, erorketa, ezina, eta lanean beltz taldearen mesedean. Eta tropelean tokitxo irabazi duenaren konfiantza

Andoni Urbistondo URNIETA

Hiru egun pasa dira, zer moduz bukatu duzu Vuelta?

Logura dut, neke handia... baina nahiko ondo.

Zerk harritu zaitu onean?

Taldeak jaso duen oihartzun mediaticoa. Itzuli handi bat da, eta jarraipena askoz handiagoa da. Madrilgo azken etapan, adibidez, irteeran zegoen jendetza, eta ze animo eman ziguten taldeko kideoi. Zerbait ondo egin dugunaren seinale.

Eta txarrean?

Erorketa, noski. Bigarren aste hori zen niretzat onena, eta Vueltako momentu onena izatetik txarrenera pasa nintzen hamar kilometroko tartean.

Eta erorikoa ez zen larria izan...

Ez, baina erorketa Vueltako 11. etapan izan zen. Giharrak dagoeneko nekea sumatzen hasiak dira, eta erortzen bazara, inflamazioa dago, gorputzak likidoak retenitzen ditu. Horrek kilo pare bat hartzen dituzula esan nahi du. Pedal kolpea ere ez da ona, biribila, mina duzulako, eta hormonalki ere aldaketa batzuk ematen dira kolpeak sendatzeko. Ezina etortzen da egun batzuetan.

Noiz eman zenion buelta?

Bigarren atsedean egunean. Oso gutxi ibili nintzen bizikletan. Ondo jan nuen, atsedena hartu, hurrengo eguneko erlojupekoa ere ez nuen bete-betean egin, eta horri esker azken astean nahiko gustura ibili naiz, ihesaldietan sartu ezinik, baina taldearentzat lan eginez.

Kontent zaudete, beraz, Vueltarekin?

Taldeko balantzea ezin hobea da. Etapa bat irabazi dugu, eta bederatzi taldek bakarrik lortu dute hori. Itzuli handi batean, non eta nori irabazita lortu genuen... sinesgaitza zen. Gero egunero aurrean ibili gara, postuak egiten. Mikel Bizkarrak ere 17. postuan bukatu du sailkapen nagusian. Eskarmenturik ez geneukan taldeko inork, hiru aste itzuli batean, Prades eta Hector Saezek izan ezik, eta denok bukatu dugu Vuelta.



Mikel Iturria Espainiako Vueltan. EUSKADI MURIAS

Eta zure balantzea?

Pertsonalki ona. Lastima erorketarik, baina hurrengo urterako konfiantza ematen dit. Ikusi dut gai naizela hiru astetan lehiatzeko, eta ez nekien ba ote nintzen, gehienez 7 egun jarraian lehiatu bainintzen Vuelta hasi aurretik. Buruz-eta indartuta bueltatu naiz, konfiantzarekin hurrengo denboraldiari begira. Perspektibarekin aztertu behar dira gauzak, dena den. Begira non nengoen 13 hilabete atzera, izerrezurra hautsita, eta berriro bizikleta gainera igotzeko gai izango nintzen jakin gabe.

Camperonako eguna bizitza osoan gogoratuko duzue. Nola bizi izan zenuten?

Bagenekien Oscar Rodriguez 10-12 minutuko ahaleginean oso trebea dela. Covatillan ere oso ondo aritu zen. Ni tropelean nindoan, Bizkarrari laguntzen ondo kokatu zedin. Mendatean gora normalean irratia kendu egiten duzu, muga-mugan zoazelako, baina autoa ondoan pasa zenean 4. zihoala esan ziguten, gero aurreko biak harrapatzeaz zela, eta berriro ere irratia entzuten hasi ginen. Une euforikoa izan zen. Aldapa zegoenik ere ez genuen sentitzen, irratia so. Behin irabazi zuenean jende askok esan zigun, batez ere euskaldunek: "irabazi duzue, zorionak". Autobusera bueltan beherantz ze-

tozen ziklista askok zoriondu gintuen. Gero Leonen hotelean ospatu genuen, txanpainarekin. **Zenbat aldatu du garaipen horrek Euskadi-Muriasen etorkizuna?** Askok. Batez ere posible dela ikusten duzulako. Oihartzun mediaticoa itzela izan zen, eta azken astean txukun ibili ginen. Oizeko etapan lana egin genuen tropel buruan, Lleidakoa ere bai, Andorran Bizkarra, Saez, Rodriguez eta ni neu nahiko aurrean...

Antolatzaileek zer esan zizueten?

Zoriondu egin gintuzten, ze talde gonbidatuekin beti halako zalantza bat dago, eta guk erakutsi dugu lan ona egiteko gai garela. Ezin zaigu gehiago eskatu.

Kontratu kontuetan eta, nola zaudete?

Kontratu berritzear nago, lasai nago arlo horretan.

Ze ate ireki dakizkioke taldeari 2019an, Vuelta txukuna egin ondoren?

Bat ireki da. Paris-Toursera ez genuen joan behar, eta orain bagoaz. Frantzia nahiko ezagunak gara. Talde osoak bukatu du Vuelta, 10. izan gara taldeko sailkapenean, eta etapa bat lortuta. Lehiakorrak izan gara, eta hori ez da oharkabea pasatzen antolatzaileen begietara. Ondo ibiltzen zaren atea errazago irekitzen dira.



Nahikari Garcia denboraldi honetan Zubietan, sartutako gola ospatzen. R.SOCIEDAD

Nahikari Garcia urnietarrak Realean jarraituko du

FUTBOLA Paris Saint Germain taldearen proposamena baztertu eta Realekin jarraituko duela baieztatu du

Erredakzioa URNIETA

Gaztea izanik ere taldeko kapitaina, Liga hasieran goleatzailenetakoa eta Espainiako selekzioan debuta egindakoa da Nahikari Garcia Urnietako jokalaria. PSG Europako talde onentsuaren deia jaso zuen,


baina negoziazioek ez dute aurrera egin, eta azkenean Realekin zuen kontratuari eutsiko diola iragarri du. Antza denez, Realak lehendik ere bazuen Garciairen kontratua hobetzeko eta luzatzeko asmoa. Urnietarra futbolaren perlatak da.

Maialen Gurrutxaga Andoaingo lasterkaria ETB1n

LASTERKETAK Maialen Gurrutxaga Andoaingo korrikalaria ETB1eko 'Gailurra X3EM' saioko partaideetako bat da

Erredakzioa ANDOAIN

Irailaren 13an 22 korrikalarik ekin zioten probari, eta 12 etapatan banatuta dagoen ibilbidea daukate aurrean, Pirinioetan barrena. Helmuga Hiru Erregeen Mahaiaren mendi-puntan jarrita daukate, lasterka ia 400 kilometro egin ostean. Ostegun gauetan ikus daiteke, 22:30etik aurrera. Gurrutxaga 33 urteko irakaslea da, eta ETB1eko saioko egindako adierazpenen arabera, "indarberitze arina du eta jaitzieretan trebea da".



Maialen Gurrutxaga. AIURRI

Osertz Alday Isuntza taldeko entrenatzailea

ARRAUNA Arraun munduari lotutako bizimoduaren adibide garbiena da. Hamar-hamaika urterekin Hondarribian arraun egiten hasi, eta hogeita hamar urtez aritu da han. Berriki Lekeitioko Isuntza lehen mailara igo du. Irakasle da La Salle Berrozpen

Amaia Senperena ANDOAIN

Lekeition eta Hondarribian heroi pareko izatera iritsi daitezke arraunlariak. Horietakoa da Osertz Alday. Arraun munduan ez ezik, Andoainen aski ezaguna da La Salle Berrozpe ikastetxean irakasle baita. Azken kirol lorpena lortu eta gero, haxe Aiurriri eskaintako elkarrizketa.

Zer izan da zuretzat arraunaren goi mailara igo izana?

Oso polita izan da eta asko disfrutatu dut. Egia da tentsio handia nabaritu dela taldeen artean. Play-Off-era sailkatzeko, ligako lehenengo bien artean sailkatu behar genuen eta amaierara arte aldeak oso estuak izan dira. Liga estua izan da eta lehenengo bi postu horietan sartu bezain pronto, buru-belarri lanean jarri ginen igoerako postu hori eskuratzeko. Oso polita da, gainera, 13-14 urte postu horren bila dabilen taldeak igoera lortu duela ikustea. Urte askotan egin den lanaren ostean lortu dugun saria izan baita eta herrian ere poza nabaritu dela esango nuke.

Arraunlariei ere mailaz igotzeak indarra eman diela esango zenuke?

Bai, beti da motibazioa. Horren beste denboran zerbaiten bila joan, eta lortu duzula ikustea, oso polita da. Egia da orain dena asimilatu ahal izateko atsedena hartu behar dugula. Lortu dugunaren inguruan hausnartu eta guzti horrekin batera datorren ikasturtera begira mekanismo berria martxan jarri.

Politza izango da zuk entrenatutako taldea mailaz igo dela ikustea...

Bai, arraunlari moduan bestekin garaipena partekatzen ari zara. Entrenatzaile bezala, beste ikuspegi batetik partekatzen duzu garaipena.

Nola eragingo du honek zuen entrenatzaile jardunean?

Arlo guztietan exigentzia maila handiagoa da orain, bai logis-



Osertz Alday irakaslea da Andoainen, Isuntzako prestatzailea Lekeition. AIURRI

tika aldetik, egin beharko ditugun bidaien aldetik, beharko dugun babesaren aldetik, etab. Entrenamenduetan, teknikoki eta baita fisikoki, beste mota bateko prestakuntza egin beharko dugu.

Hobekuntza horiek guztiak egiteko, zuk entrenatzaile moduan jarraituko al duzu?

Nire konpromisoa aurten amaitzen zen eta dena amaitzen zenean hitz egitea proposatu nion klubari. Momentuan momentukoa pentsatzea baitzen nire asmoa. Printzipioz ez dut uste beste urtebetez jarraitzeko inongo arazorik egongo denik.

Andoainen irakasle bezala ere ibiltzen zara, zaila al da bi lanak bate-ratzea?

Ez da erraza, irakasle bezala ere ardura asko daude, eta Lekeitio urruti dago, beraz joan-etorriak luze egiten dira. Guztia kudeatzeko aukera dago, beraz ahal den bitartean horrela jarraitzea espero dut.

Ez duzu pentsatu gertuagoko beste talde batean hastea?

Entrenatzaile izateko pausua eman nuenean Hondarribian oso gustura nengoen. Aldaketa beste estimulu baten bila nabilelako eman nuen. Argi nuen pausu hori eman ahal izateko

ezagutzen nuen tokiren batean izan behar zuela. Beraz, lekeitiarrak ezagutzen nituen, eta nire anaia gazteak ere bertan arraun egiten zuen, pausua eman eta bertan hastea erabaki nuen. Oraingoz ordea sentimendu hori ez dut beste inguruko taldeekin sentitu, beraz talde aldutzea ez dut nire aukeren artean ikusten.

Zein izan da zure ibilbideko lorpenik handiena?

Garaipen guztiak gustura hartzen dituzu eta guztiak ospatzen dira. Baina egia da garaipen guztiakin zerbait ezberdina sentitzen dela. Nik arraunlari bezala irabazi nuen lehenengo bandera oso gogoan dut baina momentu bereziena aukeratu beharko banu, anaiarekin 2013an Kontxako bandera irabazi nuenekoa aukeratu nuke. Oso momentu polita izan zen. Anaia eta nire artean 14 urteko aldea dago, eta adinean horrenbesteko aldea egonik, oso zaila zen elkarrekin arraun egiteko aukera izatea. Nik nuen amets hori egi bihurtzen ikusi eta gainera Kontxako bandera irabaztea oso berezia izan zen. Hori arraunlari bezala. Entrenatzaile bezala igoera honek asko markatuko nauela esango nuke.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

PREFERENTE MAILA

EMAITZAK

Euskalduna-Mariño	3-1
Roteta-Urnieta	1-2

SAILKAPENA

1 Astigarrako Mundarro	6 puntu
2 Euskalduna	6 puntu
9 Urnieta	3 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

17:30	Billabona-Euskalduna / Lar, 29
20:00	Urnieta-Tolosa / Og, 28

GORENGO MAILA, NESKAK

EMAITZAK

Bergara-Urnieta	0-1
Euskalduna-Aloña Mendi	4-6

SAILKAPENA

1 Mutriku	3 puntu
4 Urnieta	3 puntu
8 Euskalduna	0 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

	Urnieta / Atsedena
18:00	Goierri-Euskalduna / At, 29

ERREGIONAL MAILA

EMAITZA

Vasconia-Euskalduna	0-1
---------------------	-----

SAILKAPENA

1 Axular	6 puntu
3 Usurbil	6 puntu
4 Euskalduna	4 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

15:30	Euskalduna-Asoleus / Lar, 29
-------	------------------------------

JUBENIL MAILA, OHOREZKOA

EMAITZA

Billabona-Euskalduna	3-2
----------------------	-----

SAILKAPENA

1 Mondragon	6 puntu
7 Urola	3 puntu
8 Euskalduna	3 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

19:15	Euskalduna-Ordizia / Lar, 29
-------	------------------------------

JUBENIL MAILA

EMAITZAK

Euskalduna-Ostadar	2-4
Lazkao B-Urnieta	1-2

SAILKAPENA

1 Urnieta	6 puntu
7 Euskalduna	0 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

16:00	Hernani-Euskalduna / Ig, 30
18:00	Urnieta-Mundarro / Ostg, 28

KADETE MAILA, OHOREZKOA

EMAITZAK

Euskalduna-Kostkas	0-0
--------------------	-----

SAILKAPENA

1 Danena	6 puntu
12 Orioko	1 puntu
13 Euskalduna	1 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

10:40	Sanse-Euskalduna / Lar, 29
-------	----------------------------

KADETE MAILA

EMAITZA, 7. MULTZOA

Zarautz C-Urnieta A	0-3
---------------------	-----

SAILKAPENA

1 Billabona A	6 puntu
2 Urnieta A	6 puntu
3 Usurbil	3 puntu

EMAITZA, 8. MULTZOA

Urnieta B-Sanse A	2-3
-------------------	-----

EMAITZA, 10. MULTZOA

Intxurre-Euskalduna	2-1
---------------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDA

17:30	Euskalduna-Billabona B / Lar, 29
-------	----------------------------------

KADETE MAILA, NESKAK

EMAITZA

Urnieta-Euskalduna	0-0
--------------------	-----

SAILKAPENA

1 Tolosa	3 puntu
3 Zestoa	3 puntu
4 Urnieta	1 puntu
5 Euskalduna	1 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

11:00	Euskalduna-Usurbil / Lar, 29
11:45	Tolosa-Urnieta / Lar, 29

ESKUBALOIA

SENIOR MAILA

EMAITZA

Egia-Leizaran	17-29
---------------	-------

JUBENIL MAILA

EMAITZA, 1. MULTZOA

Gure Auzune-Urnieta	Bertan behera
---------------------	---------------

ASTEBURUKO PARTIDA

20:00	Urnieta-Tekniker Eibar / Oi, 28
-------	---------------------------------

EMAITZA, 2. MULTZOA

Tolosa B-Leizaran	23-35
-------------------	-------

ASTEBURUKO PARTIDA

17:30	Leizaran-Egia 2 / Lar, 29
-------	---------------------------

JUBENIL MAILA, NESKAK

EMAITZA, 1. MULTZOA

Urnieta-Consulting Alavés	17-14
---------------------------	-------

ASTEBURUKO PARTIDA

-:-	Ordizia-Urnieta /
-----	-------------------

EMAITZA, 2. MULTZOA

Leizaran-Ereintza	17-16
-------------------	-------

ASTEBURUKO PARTIDA

18:00	Laubide-Leizaran / Lar, 29
-------	----------------------------

KADETE MAILA

EMAITZA

Leizaran-Egia	35-23
---------------	-------

ASTEBURUKO PARTIDA

10:00	Tolosaldea-Leizaran / Lar, 29
-------	-------------------------------

KADETE MAILA, NESKAK

EMAITZA

Urnieta-Elgoibar	35-15
Irun B-Leizaran Urdina	12-39

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00	Leizaran Urdina-Ereintza / Lar, 29
-------	------------------------------------

ZORION AGURRAK



URNIETA Maialen
Zorionak Maialen!
Irailaren 25ean 11 urte, guztion bihotzak alaitzen. Mila muxu goxo famili guztiaren partetik.



ANDOAIN Maddi
Irailaren 29an gure printzesak 6 urte beteko ditu, eta primeran ospatuko dugu. Milaka muxu potolo zuretzat. Etxekoak. Muaaa!!!



ANDOAIN Xabat eta Galder
Irailaren 30ean Xabat eta Galderren urtebetetzea izango da. Zorionak eta muxu potoloak etxekoan partez, mundial pasa!



ANDOAIN Aitona, Maddi eta Eneko
Urte gogorra aitonarentzat baina hemen jarraitzen du, indartsu urteak betetzen! Irailaren 8an aitona 78, Maddi etxeko txikiak 15ean 8 eta Eneko gure pottok 30ean 13 urte puska beteko ditu. Hementxe izango gaituzue ospatzeko eta zuekin bizitzaz disfrutatzen prest. Izugarri maite zaituztegu. Etxekoak.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 29 eta igandea 30
ANSA: Ondarreta, 8.
943 591 302. Andoain.

URNIETA

Larunbata 29 eta igandea 30
CASTILLA LARBURU: Urbietia, 7.
943 552 941. Hernani.

Gauez, bi herrietan: Castilla.
943 552 941. Hernani.

MERKATU TXIKIA

LANA

Hizkuntza eskolako irakasleak frantseseko klaseak ematen ditu: EOI diploma, mintzapraktika, enpresetarako klaseak. **693 692 823** eta **665 719 827**.

Gazte euskalduna arratsaldez haurrak zaindu edo partikularrak emateko prest. **630 243 850**.

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 27

ANDOAIN Antzerkia

"Musika galduaren bila" antzezlan.
17:30, Liburutegiaren atzeko plaza.

ANDOAIN Ikastaroak

Udal ikastaroetan izen-emateko epea zabaldu dute: pintura eta marrazketa, arte aplikatuak, egur-taila, idazketa sortzailea edo kartoiekin egindako lanak.

Izen-ematea: Bastero, Ataria, Andoain.eus

URNIETA Sanmielak

Urnietako jaien hasiera. Egitarau osoa astekariko erdiko orrialdeetan.
16:00an hasita.

ANDOAIN Kanpaina

Erraustegiari alternatiba lantzeko sortu den Gurasos elkartearen laguntza txartelak salgai daude: Urrats, Ernaitza, Xixori, Anexo eta Keinu.

OSTIRALA 28

URNIETA Oharra

Sanmielak direla eta, Bertan bulegoa eta gainerako Udal zerbitzuak itxia egongo dira.
Egun osoan.

ANDOAIN Antzerkia

"Cruzadas" antzezlanak gerrateen zentzugabekeria agertu nahi du. Edozein gerraterena. Nueve teatro konpainiaren eskutik.
20:00, Bastero, ekitaldi aretoa.



URNIETA Helduen antzerki tailerra

"Ikuskizun baten sorkuntza prozesuan parte har ezazu: Hasierako irakurketa, aktoreen prestaketa lana, entseguak eta emanaldia. Ostiralero (18:30-20:30). Ikasturte amaierako ikuskizunaren muntaia: Ekainean, bi astez Saroben.
Matrikulazioa zabalik Saroben, datorren urriaren 5a bitarte

ANDOAIN Katramila antzerki eskola

Izena emateko epea zabalik. Ikasturtea urrian hasiko da, maiatzera bitarte. Hileko kuota: 18 euro. katramila@gmail.com. Telefono zenbakia: 688 739 618.

LARUNBATA 29

ANDOAIN Azoka

2. eskuko azoka, Udalaren eskutik.
Zumea plaza, 10:00-14:00.

ANDOAIN Erakusketa

Euskara Andoainen: eten ez den soka.
Bastero, azken eguna. 10:30-13:30 / 18:00-20:30.

ANDOAIN Kale Giroan antzerkia

'Esku harriak: Oteizaren (h)aria'.
18:00, Goikoplaza.
'Todo encaja: UpArte konpainia'.
19:00, Goikoplaza.

IGANDEA 30

ANDOAIN Txalaparta ikastaroa

Olagainen txalaparta ikasteko matrikulazioa zabalik izango da, irailaren 30era bitarte. Antolatzailea: Maizorri txalaparta eskola.
maizorri@gmail.com.

ASTELEHENA 1

ANDOAIN Elkarretaratzea

Andoaingo Gure Esku Dago taldeak antolatuta, Kataluniarekin elkartzunez.
20:00, Goikoplaza.

ZINEMA

ANDOAIN

BASTERO

Oreina


Larunbata, 29:
19:30; 22:00.
Igandea, 30:
19:30.
Astelehena, 1:
19:30; 22:00.

Luis eta estralurtarrak

Lar., 29: 17:00.
Ig., 30: 17:00.

Todos lo saben

Larunbata, 6:
19:30; 22:00.
Igandea, 7: 19:30.
Astelehena, 8:
19:30; 22:00.



SINOPSIAK



Oreina

Zuz.: Koldo Almandoz. **Herr.:** Euskal Herria (2018). **Iraupena:** 85 minutu. **Hizkuntza:** Euskara, gaztelaniazko azpitoluekin.

Bizimodu hobegoen bila

Bi anaiek urteak daramatzate elkarri hitzik egin gabe. Bi zatitan banatutako familiako

etxean bizi dira. Pertsonaia gutxiko eta paisaia ederreko film iradokitzailea da.

Luis eta estralurtarrak

Zuz.: Wolfgang Lauenstein, Christoph Lauenstein. **Herr.:** Alemania (2017). **Aktoreak:** Animazioa. **Iraupena:** 85 min.

Luis eta espazioko bizitza

12 urte ditu Luisek eta ez du lagunik. Espazioan bizitza adimenduna badela frogatu nahi du; hori dela eta, teleskopiotik begira ematen ditu gauak. Ondorioz, Luis

barnetegira eraman nahi dute. Hiru estralurtar xebe bere etxe-atarian eroriko dira. Estralurtarrak salbatzeko plana asmatu ostean, barnetegira ez joaten lagunduko diote.

Xabier Lasa URNIETA

Ramon Saizarbitoria Donostia-ko idazleak euskal idazleei egotzi izan zaizkien zenbait aje izan zituen hizpide Urnietan irailaren 12an, "Indarkeria eta kontraera literarioa" izenburuko hitzaldian. Elkarbizi elkarteak gonbidatuta hartu zuen parte. Solasaldian zehar salaketei erantzun nahi izan zien, eta horrekin batera, azken 50 urtetan Euskal Herriak bizi izan duen indarkeriaren eta beren kontakizunaren gaineko bere iritzia eman zuen.

Maribel Vaquero Gipuzkoako Foru Aldundiko Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendari nagusiak egin zituen aurkezle lanak. Sarrera laburrean, idazlearen bi alderdi nabarmendu nahi izan zituen; batetik, "literatur ibilbidearen kalitatea eta euskal literaturari egin dion ekarpena eta euskara batuaren defentsa, eta bestetik, pertsona bezala, gaitasun literarioaz baliatuz, gizarte gaietan izan duen inplikazioa eta konpromiso soziala".

Saizarbitoria euskal idazleei azken aldian leporatu izan zaien izan zuen hizpide; alegia, beldurra eta interesa medio indarkeriaren aurrean itsu egon direla. Fernando Aranburu 'Patria' nobelako egilea izan da modurik ozenenean jardun duena salaketekin. Baina badira gehiago; Rey Juan Carlos unibertsitateko katedradun Jose Luis Rodriguezek Atxaga, Muñoz, Cano eta Saizarbitoria bera aipatuz, euskal idazleen literaturan ETaren eginak justifikatzeko ahalegina egon dela adierazi zuen. Bere ustean terroristak biktimak bilakatu izan dituzte, eta ETAkidea eta beren ingurukoak biktimak.

Bada, Saizarbitoria zenbait ñabardura egin nahi izan zituen. Lehenbiziko eta behin, literaturaren autonomia aldarrikatu nahi izan zuen. "Gero eta argiago daukat arteak eta literaturak libreak izan behar dutela. Politikoki ere ez lukeela zuzena izan behar. Nobelagilearen ardura nobela idaztea da, ez besterik. Hobe, mila aldiz, asmo txarrez beteriko idazle ona, asmo onez beteriko idazle txarra baino".

Bigarren ñabardura, euskal idazleek fokua biktimengan baino gehiago askotan ETako ki-deengan jarri izanaren salaketaren ingurukoa izan zen. Errea-



Ramon Saizarbitoria idazlea Urnietako Lekaion, Elkarbizik antolatutako hitzaldian. AIURRI

Euskal gatazka gure literaturan

Elkarbizi taldea ikastaro modura aurkeztzen ari den hitzaldi sorta eskaintzen ari da Beterri-Buruntzan. Joan zen irailaren 12an Ramon Saizarbitoria idazle ezagunak hitzaldia eskaini zuen "Indarkeria eta kontraera literarioa" izenburupean

litate hori onartu egin zuen Saizarbitoria, "Entzuleen artean biktimarik baldin badago sentitzen dut, baina literarioagoak dira militante baten gora behar. Biktimen mundua konplexua da; uler dezaket zer den aita edo anaia galtzea, baina konplexuagoa da".

Nolanahi ere, adierazi zuenez, "gure lanok gizarteak indarkeria politikoarekiko ikuspegiaren eboluzioa islatu dute, gizarte orokorrak baino pauso txiki bat aurrerago zenbait kasuetan, beharbada". Berak idatzitako hiru nobela aipatu zituen eboluzio hori islatuko luketenak. "Ehun metron, 1974-1975an gaudu, eta bigarrenengo pertsonan, polizia atzetik daukan ETako kide baten pertsekuzioa kontatzen du, tiroz hiltzen duten arte. Begi-bistakoa da nobelak adie-

razi nahi duena: alferrikakoa zela militante idealistaren sakrifizioa aberriaren eta askatasunaren aldekoa. *Hamaika pauso* nobelan, protagonista, muga zeharkatu behar duen ETAkide bat etxean gordetzera derrigor-tuta dago. Egoera hori, euskaldun izateak fatalitatearekin lotzen du protagonista. Harremana garatu ahala, konturatzen da ETAkideak odol-husten duela, bizi-espazioa jaten diola. Azkenean ez du beste erremediorik ikusten, ETAkidea eta biak inmolatzea baizik.

**GERO ETA ARGIA
DAUKAT ARTEAK ETA
LITERATURAK
LIBREAK IZAN BEHAR
DUTELA**

Martutene hirugarrenengo nobelan agertzen dira terrorismoaren biktimak, eta askok indarkeria erabili dutenen aurkako eta biktima izan direnen aldeko analisi kritikoak egiten dituzte".

Ñabarduren arloan, azkenik, zenbait baldintzen pean idatzi izanaren salaketa izan zuen hizpide. "Aranburuk beti aipatzen du interes ekonomikoaren eraginean idatzi dugula. Nik uste berak arazoren bat duela, alderdi horri hainbeste garrantzia emateko. Aitortuko dut, ordea, baldintzatuta egon garela, ez garela libreak izan. Ez diruagatik noski. Nik neuk, aldi bakoitzean sentitzen nituen istorioak kontatu izan ditut, baina gezurra esango nuke aitortuko ez banu nire inguru sozialak eragotzi ere izan didala hiritar bezala zego-kidan postura hartzea.

Oinarrizkoa, onartu behar

Indarkeriazko iraganaren gainean egin beharreko kontakizunaz konponbide zaila ikusten du. Urnietan Jaurlaritzak eskatuta Foronda Institutuak 2015ean egin zuen txostena hizpide izan zuen, bat egiten zuela adierazteko. Esan behar da "Terrorismoaren testuinguru historikoak eta biktimikiko arreta soziala. 1968-2010" izeneko txostenak zenbait sektore politiko eta sozialen txaloak jaso dituela, hamarkadetako indarkeriari buruzko datuak eta eragina bikain islatzen dituelakoan; beste batzuk, ordea, kritiko agertu dira partzialtatz jota, besteak beste, ez omen duelako frankismoaren testuinguru historiko errepresiboa aztertzen eta estatuak eragindako indarkeria apenas aipatzen duelako.

Ondoren, Saizarbitoria aitortu zuen ez zettorrela bat Juan Aranzadi antropologoaren ikuspegiarekin. Azken honen arabera, ezin da diskurtso bakarra inposatu azken 50 urtetan gertatu denaren gainean. Osasungarria deritzo jasotzea kontraesankorrak eta dibergenteak gerta daitezkeen bizipen pertsonalak, ETaren, gerra zikinaren edo eta polizia ezberdinen biolentziari lotutakoak. "Asko maite dut Aranzadi, baina beste iritzi batekoa naiz ni. Beste hark esaten zuen bezala, Mundu Gerra konplikatua da, baina Belgikak ez zuen Alemania inbaditu. Gurean ere, zenbait gauza ez lirakeke eztabaidagarriak izan behar. Gure historian badira zenbait gertaera oinarrizkoak eta ukaezinak, eta neu izan naiz horien lekuko: ETak jende ugari erail zuen beren ideia politikoengatik eta beste asko ere handik pasatzea egokitu izanagatik. Justifikaezina den egundoko sufrimendua eragin zuen, armak uzteko eskatzen zion herriaren aldarriari muzin eginez. Eta azkenean armak utzi zituenean, bere helbururik lortu gabe izan zen, bera eta bere ingurunea zuzenbide estatuak setiatuta zeukanean eta terrorismo yihadistaren ispilua besterik geratzen ez zitzaionean".

Saizarbitoria erantzutuz ETak eragindako indarkeria oinarrizko errealtate gisa onartzea ezinbesteko baldintzatatzat jo beharko litzateke. Hortik aurrera, legitimotasun guztia egongo litzateke gertatu diren gainerako giza eskubideen bortxaketa guztiak erreklamatzeko.



AZKEN BERBA

JON ANDER UBEDA
ANDOAIN

Lezioa jasota goizean goizetik

Lezio ederra eman zidan. Andoainera bizitzera etorri nintzenetik ezaguna zaidan arren, ez nuen hamalau urteotan mutil horrekin hitzik trukatu. Jantzera eta orrazkera deigarriekin ia beti, ibilera baldar eta geldoa du. Medikazioaren eragina. Buruko gaixotasuna du, eta tarteka bere egoera beretsuan dauden beste pertsona gehiagorekin batera etxe azpiko tabernara freskagarriren bat hartzera ekartzan dituzte.

Larunbat goizean, ireki bezain pronto, Zumea plazako merkatalgunera sartu nintzen. Eta ordainketa egiten ari nintzela lezio ederra eman zidan pertsona hori adi-adi begira jarri zitzaidan. Jabetu nintzen, noski. Baina ez ikusiarena egin nuen. Ni nerera, deserotasuna nirekin joango ez balitz bezala. Eta halako batean galdera bota zidan. Soinean neraman kamisetaren irudia *ezdakitzein* super heroiarena ote zen jakin nahi zuen. AC/DC musika taldearena zela erantzun nion -anaiak ekarri zidan atzerrira egindako bidaiarekin. Tximista nabarmentzen da, kamisetaren zabalera osora hartzeraino. Eta AC/DC letrak txiki-txiki agertzen dira-.

Kamiseta baten bila zebilela esanez jarraitu zuen hizketan, ez zuela inon topatzen. "Interneten aurkituko duzu" bota nion. Berehala erantzun zidan: "Seguru, baina nik ez dut *pay pal* eta horrelakorik". Neu bai baldarra. Erantzun txatxua nirela!

Atsegin eta zuzen aritu zitzaidan. Neu, aldiz, deseroso. Beragatik ez balitz, beste hamalau urte gehiago emango nituzke ez ikusiarena egiten.

Elkar agurtu genuen. Eta supermerkatutik irten nintzen une beretik mutil horrek lezio ederra eman zidala pentsatzen aritu naiz.

AZKENA



Janire Urrestarazu, Angelina Spycher eta Ihintza Tellabide Urnietako AEK euskaltegian. AIURRI

AEK euskaltegian izena emateko azken egunak

Irailaren 28ra bitarte eman daiteke izena Andoaingo eta Urnietako AEK euskaltegien. Iaz Urnietan 54 ikaslek eman zuten izena, bost mailatan banatuta. Gehienak maila baxuan egon ziren, eta arrakasta handiz joan zen lehen urtea

Olatz Lasa URNIETA

Iaz ireki zituen ateak Urnietako AEK euskaltegiak, Errekalde kalean. Gelara sartu eta hormak euskarazko esaldiz, aditez eta esapideez apaindurik daude. Janire Urrestarazu eta Ihintza Tellabide bertako irakasleak dira. Gogotsu daude klaseak hasi eta ikasle berriekin batera ikasturteari ekiteko.

Urtebete igaro da Urnietan AEK euskaltegia ireki zenetik. Zer nolako balorazioa egiten duzue?

Ihintza Tellabide: Oso ona. Inpresioa dut ikasle asko etorri zirela iaz, lehen urtea izateko. Sorpresa izan zen. Aurten talde gehiago sortzeko aukera egongo dela ematen du, jendea hasi baita deitzen informazioa eskatuz. Itxura ona du.

Janire Urrestarazu: Berrogeita hamar ikasle inguru izan genituen iaz, 5 taldetan banatuta. Espero genuena baino askoz ere gehiago izan zen. Gehienez ere hiru talde osatuko genituela uste genuen.

Zein profiletako jendea etorri ohi da euskaltegiara?

J. U.: Denetik. Gehienek ez dute euskara inoiz ikasi izan, eta beste batzuk duela urte batzuk ikasten hasi eta orain berreskuratu nahi dute, euskaldundu nahi dutelako edo tituluren bat behar dutelako, batez ere EGA.

Zein leku du euskarak Urnietan?

J. U.: Gu ez gara urnietarrak baina nik uste gazteen artean ez dela euskara gehiegi erabiltzen. Hernaniko egoera antzekoa dela ikusten dut. Gazte batzuk beti jardungo dute euskaraz, eta beste batzuk, ez dute praktikan jartzen.

Zein eskaintza duzue?

J. U.: Maila guztiak eskaintzen ditugu: Hutsetik hasi eta EGA mailara bitarte. Goizez, eguerdiz zein arratsaldez ikasteko aukera eskaintzen dugu.

Euskaraldia dinamikaren baitan nola hartuko duzue zuek parte?

J. U.: Euskaraldiaren parte izango gara, eta gure ikasleentzat ere oso interesgarria izango da.

Irailaren 28ra arte eman daiteke izena. Non?

J. U.: Euskaltegiara etorrita, urnieta@aekeus helbide elektronikoa eta 662 338 747 telefono zenbakian ondorengo ordutegian: astelehenean eta asteazkenean 09:00etatik 13:00etara, eta asteartetan eta ostegunetan 17:00etatik 19:00etara.

Euskara ikastea "lotsa" ematen dien herritarrei mezuren bat zabaltzekotan...

J. U.: Anima daitezela. Urnietako euskalduntzeko kolektiboki egin behar dugula lan. Ez dela barkarkako apustua. Etor daitezela euskaltegiara eta bultzadaxo bat emango diegu hasierako lotsak kentzeko.

Angelina, Urnietako suitzarra

Duela 25 urte etorri zen Angelina Spycher Suitzatik Urnietara. Urtebete darama euskara ikasten herriko euskaltegian, eta hain denbora laburrean, ulermena ederki garatu du.

Hizkuntzak asko gustatzen zaizkio, eta euskara ere bai, nahiz eta zaila dela adierazi duen.

Herrian, batez ere, dendetan erosketak egiterakoan praktikatzen du euskara. Bere iritziz, oso garrantzitsua da bizi zaren herriko hizkuntza jakitea, bertakoekin integratzeko. Eta lagunekin euskaraz hitz egiten al duen galdetuta honakoa erantzun du: "Nire laguna euskalduna da, baina gaztelaraz hitz egiten du".

Aurtengo ikasturtean berriro eman du izena AEK euskaltegian euskara praktikatzen jarraitzeko.



Urnietako jaiak Aiarri astekarian eta aiurri.eus webgunean

Hitzorduak, argazkiak, bideoak, kronikak...
ONDO PASA JAIETAN!

www.aiurri.eus